

## 14. IKASGAIA.- KONTUEN AUDITORIA ERREGULATZEN DUTEN BESTE LEGE BATZUK.

### Aurkibidea

- Helburuak
- Merkataritzako Kodea
- Baloreen Merkatuari buruzko Legea
- Sozietate Kooperatiboei buruzko Legea
- Glosategia

### 14.1. HELBURUAK

Ikasgai honen helburua, ikasleek Kontuen Auditoria partzialki erregulatzen duten beste arau batzuen ezagutza izatea da. Orain arte, Kontuen Auditoria, batez ere, Kontuen Auditoriari buruzko Legean eta bere Erregelamenduan erregulatuta dagoela ikusi dugu. Kapitaleko Sozietateei buruzko Legean kontuen auditoriari buruzko arauak ere aztertu ditugu eta, nahiz eta zuzenean ez dugun adierazi, kontuen auditoriari buruz Merkataritzako Erregistroari buruzko Erregelamenduak erregulatzen duena ere aztertu dugu.

Hamalagarren ikasgaia, ikasgai laburra da eta, bertan, kontuen auditoriari buruz, zenbait arauak erregulatzen dutena aztertzen da. Ikusiko dugunez, gehienetan, auditorearen izendapenari buruzkoak diren kasu puntualak dira.

Ikasgai hau bukatzean, ikasleak hurrengo gaiak ezagutuko ditu:

- Epaitegiak egindako auditorearen izendapena, bidezko interesa frogatzen duen pertsonak eskatuta
- Auditorearen izendapena Baloreen Merkatuari buruzko Legean
- Auditorearen izendapena Kooperatibatan

### 14.2. MERKATARITZAKO KODEA.

Enpresari guztiak beraien enpresaren urteko kontuak ikuskatzera behartuta egongo dira dagokion Auzitegiak horrela erabakitzen badu, bidezko interesa frogatzen duenaren eskaera oinarritua onartzen badu.

Kasu honetan, Auzitegiak, auditoria gastuei aurre egiteko dagokion fidantza eskatuko dio eskatzaileari, berrikusitako urteko kontuetan akats edo irregulartasunik ez dagoenean bere kontura joango baitira. Honetarako, auditoreak, burututako txostenaren kopia bat utziko du Auzitegian (Merkataritzako Kodearen 40. artikulua).

Adibidea: hartzekodun batek, Obligaziodunen Sindikatuaren Komisarioak (obligaziodunen ordezkaria), edozein bazkidek edo sozietatearen langileek sozietatearen urteko kontuengan mesfidantza sentitu dezakete. Horietako edozeinek bidezko interesa duela frogatu dezake eta, eskaera oinarritua egiten badu, ekitaldi horretako urteko kontuak ikuska ditzan, Epaitegiak auditore bat izendatzea lor dezake.

#### Eskaera egiten duenak jarri beharreko fidantza

Hasera batean, gastuak ikuskatutako sozietateak ordaindu beharko ditu, auditoria txostenak urteko kontuak ongi zeudela adierazten badu ezik. Azken kasu honetan, Epaitegiari auditorea eskatu zion pertsonak ordaindu beharko ditu gastuak. Gastu horiek estali ahal izateko, aurretik fidantza bat jarri behar izan zuen Epaitegian.

### 14.3. BALOREEN MERKATUARI BURUZKO LEGEA.

Sozietate batek baloreak jaulki nahi dituzenean, igorlearen egoera finantzarioa ikuskatu beharko da, horretarako, auditore bat izendatuko delarik (26.c) artikulua). Baloreak jaulkitzen dituen Sozietate orok foileto informatzaile bat argitaratu beharko du eta baloreen harpidetza egiten duten guztiei de balde eman. Foileto informatzaile honetan, beste gauza batzuen artean, kontuen auditoriaren ondorioak literalki jarri beharko dira.

Sozietateak, bere baloreen negoziazioa bigarren mailako merkatuan egin nahi badu, sozietatearen auditoria txostena ere beharrezkoa izango da. Bigarren mailako merkatu batean baloreak onartuta dituzten entitateek, urtero, beren urteko kontuak ikuskatu beharko ditu (35. artikulua).

Auditoria txostena eta, egongo balitz, gestio txostena informazio publikoa dira, baloreak jaulkitzen dituen sozietatearen egoitzan ikus daitezkeelarik. Gainera, Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionalak egindako auditoria txostenak dituen Erregistro bat mantenduko du (92. eta 27. artikulua).

#### Baloreen Merkataritza Legea eta Lehen mailako Merkataritza eta Bigarren mailako Merkataritza

Lehen Mailako Merkataritza: honetan, inbertitzaileek jaulkipen momentuan harpidetzen dituzte baloreak (jatorrizko eskurapena). Bigarren Mailako Merkataritza: lehendik harpidetuak izan diren baloreak kontratatzen dira bertan (ez da jatorrizko eskurapena, geroagokoa baizik). Balorea kontratatzen duenak, merkatu honetan balore hori sal dezake. Merkatu honetan, saldu eta erosi daiteke.

### 14.4. SOZIETATE KOOPERATIBOEN BURUZKO LEGEA.

Sozietate Kooperatibo baten urteko kontuak, hurrengo baldintzaren bat ematen denean, ikuskatuak izan behar dira:

a) Kontuen auditoriari buruzko Legeak edo bere Erregelamenduak horrela aurreikusten dutenean. Ondorioz, balantze laburtua aurkeztu ezin duten Kooperatibek beren urteko kontuak ikuskatu behar dituzte (Kontuen auditoriari buruzko Legearen

Lehenengo Xedapen gehigarriaren bigarren puntua eta Erregelamenduaren Seigarren Xedapen gehigarria).

b) Batzar orokorraren deialdia galdatu dezaketen bazkideek eskatzen dutenean.

**Batzar Orokorraren deialdia galda dezaketen bazkideak**

Bazkide hauek, gutxienez, boto guztien ehuneko 20.a izan behar dute. Arau orokor bezala, Kooperatibatan, bazkide bakoitzak boto bat dauka. (Salbuespenak, Kooperatibei buruzko Legearen 35.2 artikuluan)

c) Estatutuek, Batzar orokorrak edo Zaintza Batzordeak horrela aurreikusten dutenean.

Kontuen auditoreak, Batzar orokorrak izendatzen ditu. Batzar orokorrak ez baditu auditoreak izendatu, edo izendatutako pertsonak ezin badituzte beren funtzioak bete, administratzaileek egin dezakete auditoreen izendapena.

**Zaintza Batzordea**

Ehun bazkide baino gutxiagoko Kooperatibatan, organo hau ez da obligaziozkoa. Organo honek, gutxienez, hiru kide izango ditu.

Administratzaileek Zaintza-batzordeari kooperatibaren jardueren eta ustez izango duen bilakaeraren berri eman beharko diote, gutxienez, hiru hilabetetik behin. Bere funtzioak, 53. artikulua dioenez, beste batzuen artean, hurrengoak dira:

1. Urteko kontuak aztertzea eta Kooperatibako liburuak aztertzea.
3. Batzar Orokorra biltzeko deialdia egitea, kooperatibaren onerako beharrezkotzat jotzen duenean.
4. Batzar Orokorrak egin behar dituen gainerako organoetako kideen aukeraketa eta izendapena zaintzea.

## 14.5. GLOSATEGIA

### **Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionala (Comisión Nacional del Mercado de Valores- CNMV)**

Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren menpe dagoen Erakunde bat da eta Lehen mailako merkatuaren eta Bigarren mailako merkatuaren (Burtsa), Baloreen Agentzia eta Sozietateen, Inbertsio Kolektiborako Instituzioen gainbegiraketa eta ikuskapenaz arduratzen da.